

SALBA DITZAGUN OZEANOAK!

Ozeanoak ezinbestekoak dira gure planetaren orekarako, gaur egun bereziki. Izan ere, lehenbailehen egin behar diogu aurre klima-aldaketaren eragin suntsitzaileari. Ozeanoak Lurreko uraren %97 dira, eta giza jarduerak sortutako CO2-aren %30 xurgatzen dute. Horrela, berotze globalaren eragina murrizten dute ozeanoek. Itsasoak eta ozeanoak ezinbestekoak dira, ez soilik ingurumenerako, baita ekonomiarako eta elikagai-segurtasunerako ere.

Gure biziraupenerako nahiz gure planetaren biziraupenerako oso garrantzitsuak badira ere, **gaur egun ozeanoak larriki mehatxaturiko ekosistemak dira, giza ekintzen ondorioz** Ekintza horien artean, **plastikoen kutsadura** nabarmentzen da: ozeanoko km² bakoitzeko, 13.000 pusketa hondakin plastiko daude batez beste. Azken berrogei urteetan, horrelako hondakinak ehun bider areagotu dira Ozeano Barean. Hainbeste handitu dira, ezen zaborrezko masa izugarri bat sortu baita ozeano horren iparraldean; zehazki, AEBren azaleraren heren baten tamaina du, eta **“Zazpigarren kontinentea”** deritzo. Kasu hori bereziki larria bada ere, ez da kasu bakarra, gaur egun gure planetako beste ozeano batzuetan ere ari baitira plastikozko masa handiak osatzen.



PLASTIKOAK, OZEANOEN MEHATXUA



Material birziklagarriak biltzen dituen haur bat koltxoi batean etzanda eta hondakin flotatzailez inguratuta Pasig ibaian, Manila, Filipinak.

© Mário Cruz, World Press Photo 2019

Gure itsaso eta ozeanoetara batez beste 8 milioi tona plastiko iristen dira urtero, eta hamarka, ehunka, baita milaka urte ere behar izango dituzte deskonposatzeko. Baliabide berriztagarriekin eginiko plastikoak ere (bioplastikoak), ez dira zuzenean degradatzen ingurumenean, eta are gutxiago ozeanoetan, uretan degradazioa motelagoa baita lehorrean baino. Horregatik aurki daitezke hondakin plastikoak ozeano guztietan, baita Artikoko izotzean harrapaturik edota 10.000 m-tik gorako sakoneran ere.



Ozeanoetan plastikoak metatzeak hamaika ondorio negatibo ditu, ez soilik ingurumenean, baita ekonomian eta gizakiarengan ere.

Kalteak ingurumenean. Plastikoaren kontsumoak ingurumenean eragiten dituen kalteen artean **ekosistemen kutsadura** aipa dezakegu, bereziki itsas ekosistemena, eta horren ondorioz, bertako **bioaniztasunaren galera**.

Urtero, **milioi bat hegazti eta 100.000 ugaztun baino gehiago hiltzen dira, itsasora iristen diren plastiko guztien ondorioz.**

Kalteak gizakiengan. Itsas ekosistemetan hondakin plastikoak metatzeak **lariagotu** egin ditzake **hondamendi naturalen ondorioak**, berekin ekarriko du **gaixotasunak errazago kutsatzea** (hala nola malaria), eta eragin negatibo handia izango du elikadura-segurtasunean, 2.600 milioi pertsonarentzat baino gehiagorentzat

Mikroplastikoak deiturikoak (5 milimetro baino txikiagoak diren plastiko-zatitxoak) bereziki dira kaltegarriak. Kalkuluen arabera, EBn urtero 75.000 - 300.000 tona mikroplastiko isurtzen dira ingurumenera¹. Plastikoen izurrite hori oso gertu dugu: kalkuluen arabera, Mediterraneo itsasoaren arloan munduko mikroplastiko guztien %21 - %54 dago.

PLASTIKOZKO MUNDU BAT

Gaur egun, **400 milioi tona plastikotik gora** ekoizten da urtero, eta aurreikuspenen arabera, **2020an 500 milioi tona** ekoiztera iritsiko gara, **1980an baino %900 gehiago**.

Plastiko-ekoizpenaren etengabeko gorakada material horren eskari gero eta handiagoaren ondorioa da; **Europan plastiko gehien kontsumitzen duten herrialdeen artean, Espainia laugarren postuan dago**. **Plastiko-hondakinak ez dira biodegradagarriak**, eta horrez gain, **plastikoen ekoizpenean baliabide kutsatzaileak eta ez-berriztagarriak erabiltzen dira: erregai fosilak**. **Plastikoen ekoizpenak egungo erritmo berean handitzen jarraituz gero, 2050. urterako plastikoaren industriak munduko petrolioaren %20 kontsumituko du.**

Plastiko-kopuru gehiena erabilera bakarreko produktuak ekoizteko erabiltzen da, eta produktu horien hondakinak dira gaur egun ingurumenean ugariak, batez ere itsas ekosistemen kutsadura. Adibidez, minutuko **10 milioi plastikozko poltsa erabiltzen dira, gutxi gorabehera**. **Espainian, 30 milioi lata eta plastikozko botila botatzen dira egunero, eta hondakin horiek gure lurrak, kostaldeak eta itsasoak kutsatzen dituzte.**



ozeanoak baitira oinarrizko proteina-iturria. Gainera, egiaztatuta dago animalien ehunen bitartez plastikoak gizakion elikadura-katera irits daitezkeela.

Kalte ekonomikoak. Mundu mailan, kalkuluen arabera, **plastikoaren ondorioz ozeanoetan sortzen den kutsadurak 13.000 milioi**

dolarreko galera ekonomikoak eragiten ditu urtean. Kopuru horiek kontuan hartuta, kalkulatu da ingurumenean metatzen diren erabilera bakarreko plastiko horiek guztiak kentzeak kostu handiagoa dakarrela, une honetatik aurrera hondakin horien isuriak geratzeko prebentzio-neurrietan inbertitzeak baino.



ZER EGIN DEZAKEGU?

IRTENBIDE BILA

Benetan plastikotan ito nahi ez badugu, lehenbailehen hasi behar dugu irtenbide bila. Munduko buruzagiek dagoeneko hartu dituzte urpeko bizia zaintzeko konpromisoak, garapen jasangarrirako agenda berriaren parte diren eta elkarrekin erlazionatuta dauden mundu mailako hamazazpi helburuetako baten bidez, hau da, **Garapen Iraunkorrerako Helburuetako (GIH)** baten bidez.

Zehazki, **14.GIH**aren bidez, estatuak konpromisoa hartzen dute **ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzeko eta modu jasangarrian erabiltzeko, garapen jasangarria lortzeko bidean.**

Orain arte, arazoari aurre egiteko proposatu izan den irtenbide nagusia **birziklatzea** izan da. Hala ere, plastikoa ez da modu eraginkorrean birziklatzen den materiala. Bestalde, argi eta garbi dago **ez dela nahikoa birziklatzen:** erabiltzen ditugun plastiko-ontzien ia herena bilketa-sistemetatik kanpo geratzen da eta azkenean gure ingurumena kutsatzen du. Espainian, plastikoaren %30 baino ez da birziklatzen. Egungo kontsumo-ohiturekin eta hondakinen kudeaketa berarekin jarraitzen badugu, **2050ean 12.000 milioi tona zabor plastiko inguru izango ditugu gure ingurumena kutsatzen.**

Beraz, birziklatzea beharrezkoa da, baina ez da nahikoa. Zer egin dezakegu, orduan? Lehenik eta behin, ezinbestekoa da hondakinen kudeaketarako sistemak nabarmen hobetzea, bai eta “ekonomia

zirkularra” deritzonaren printzipioei jarraitzea eta sustatzea ere; hau da, urrezko hiru arauei jarraitzea: **birziklatzea, berrerabiltzea eta murriztea.** Azken arau hori da, zalantzarik gabe, denen artean garrantzitsuena. Nazio Batuen Erakundearen azken txostenen arabera, **hondakin plastikoaren kalteak arintzeko estrategia eraginkorrena plastikoaren kontsumoa murriztea da.**



**12.000
MILIOI
TONA
ZABOR**

© Javier Romero

*Gaiari buruz informazio zehatzagoa nahi baduzu, gure webgunean aurkituko duzu, irakasleentzako material osagarrian. Webgunean, gainera, gaiari sakontzeko baliabideak ere aholkatzen dizkizugu.



HEZKUNTZA, KONPONBIDERAKO EZINBESTEKOA

Hala, plastikoeek eragindako kutsadurari aurre egiteko eta gure ozeanoak babesten lagutzeko, ez da nahikoa izango noizean behin aldaketa jakin batzuk egitea: **erlaldaketa sakonak behar ditugu gure ekoizpen- eta kontsumo-ereduetan.**

Alde horretatik, hezkuntza ezinbestekoa da, herritarren eskura jartzen baititu ingurumen-arazoei irtenbidea bilatzeko eta gure ekoizpen- eta kontsumo-ereduak lehenbailehen aldatu beharraz jabetzeko beharrezkoak diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak. Gainera, frogatuta dago **hezkuntza-maila altuagoa duten pertsonak gehiago inplikatzaren direla ingurumen-arazoak modu aktiboan konpontzen eta ingurumenaren babeserako neurri politikoak aldarrikatzen.**

Hortaz, heziketak erraztu egiten du herritarrak inplikatzera eta mobilizazioetan parte hartzea, eta, dagoeneko badakigun bezala, horiek faktore erabakigarriak dira politika publikoetan aldaketak lortzeko.

Mundu osoan zehar adibide arrakastatsuek erakusten duten moduan, nabarmentzekoa da **ingurumen-hezkuntzaren** bidez barneratutako ezagutzen aplikazio praktikoak eta kontzientziazioak eragin positibo handia dutela: adibidez, **Baliko bi neska nerabek** uharte osoan plastikozko poltsen erabilera debekatzea lortu dute, bai eta horrela mugimendu bat hastea eta mundu osora

hedatzea ere. Bestalde, nabarmentzekoa da gobernuek pixkanaka eredu jasangarriagoak lortzeko proposatzen dituzten neurri eraldatzaileak arrakastatsuek izateko ezinbestekoa dela herritarrek neurri horiek onartzea. Ildo horretan, hezkuntza erabakigarria da: frogatu denez, **kontsumitzaileek zenbat eta gehiago jakin zer ondorio negatibo eragiten dituen plastikozko produktuen gehiegizko erabilerak gizartean, ingurumenean eta ekonomian, orduan eta oztopo gutxiago jartzen dituzte beren eguneroko bizitzan aldaketa horiek egiteko.**

Hori guztia dela eta, ezinbestekoa da **jasangarritasun sozialaren eta ekologikoaren printzipioak hezkuntza-curriculumean eta ohiko jardun didaktikoetan txertatzea, txiki-txikitatik.** Era berean, funtsezkoa da haur eta gazteen zein haien familien eta inguruko en hausnarketa bultzatzea, konpromisoa har dezaten ozeanoak babesteko, plastiko-kontsumoa murrizteko eta klima-aldaketaren aurka egiteko, eta, horretarako, norberaren ingurutik abiatuta baterako neurriak har ditzaten, bai eta ordezkari politikoei herritarren ereduari jarrai diezaiotela eska diezaieten ere.



SALBA DITZAGUN OZEANOAK!

#HAMA2020

Nafarroako Gobernua  Gobierno de Navarra



www.cme-espana.org
HEZKUNTZAREN
Aldeko Mundu-kanpainia

 GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACION PARA EL DESARROLLO

 EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

3-5 urteko
haurrentzako jarduera

AQUATIKA

Iraupena: 2 ordu. Zenbait saiotan antolatuko da, eta jarduerak paperean egiteko, taldeak egin daitezke.

Materialak: interneterako konexioa duen ordenagailua, proiektorea, “Aquatika” ipuina www.youtube.com/watch?v=-2FJcqnrXk, ipuinaren orrien fotokopiak (www.intered.org/es/recursos/aquatika).

Helburuak: 1. Naturara hurbiltzea eta itsas hondoko mundua nahiz bertako izaki bizidunen bizimoduak hobeto ezagutzea.

2. Beste pertsona batzuen (hiriko pertsonen) ekintzek itsaspeko bizian zer-nolako eragina duten ulertzea.

3. Arazo bat konpontzeko elkarrizketan jarduteak eta erabakiak taldean hartzeak zenbateko garrantzia duten jabetzea.

GARAPENA



Ikusi “Aquatika” ipuina (6:58 minutuko iraupena du). Zatika lantzea eta amaieran berriz ere osorik ikusiz gozatzea gomendatzen da. 1. eranskinean istorioaren transkripzioa dago, eta estekan testua ingelesez, galegoz, katalanez eta euskaraz dago eskuragarri.

1. URRATSA 2:07 minutura arte

Sortu elkarrizketa bat, dortoken familiako kideek zer izen duten gogoratzeko. Hitz egin ozeanoan aurki daitezkeen espezieei buruz, eta argitu, ezberdinak izan arren, denek dituztela elkarbizitzarako beharrezkoak diren gauza garrantzitsuenak: garbiketa-lanak egiten dituzte...

Aintzat hartu aniztasuna, eta denen artean, aipatu egon daitezkeen bizimoduen artean eta gure inguruan ezagutzen ditugunen artean zein ditugun gustukoak. Guztion ongizaterako ekintzen artean, bakoitzak nahiago dituenak egin ditzake, nahi dituen koloreak erabil ditzake, etab.



2. URRATSA 4:50 minutura arte

Hitz egin Irinak eta haren lagunek gustuko dituzten ipuinei buruz. Ba al dute ipuin horien izenburuek antzik guk ezagutzen ditugun libururen batzuekin?

Gelditu 3:22 minutuan, eta nabarmendu zer arazo eragiten dizkiegun beste izaki bizidun batzuei guk zaborra sortzearekin.

Eskatu haurrei hausnartzeko zer irtenbide egon daitezkeen arrainak freskagarrien plastikoekin ez korapilatzeke, eta irtenbiderik bururatzen ez bazaie, lagundu sareak moztu behar direla konturatzen. Animatu ekintzaileak izatera eta nork bere etxean azaltzera.

Hausnar dezatela zeinen positiboa den arazo bat konpontzeko elkarrizketara jotzea, denon artean hobeto lortzen baitira helburuak.

- Nola uste duzue zuek helaraz dezakezuela itsasora ez dutela zabor gehiago bota behar? Ideia-jasa (*brainstorming*).

3. URRATSA amaierara arte

Hitz egin honi buruz: zeinen garrantzitsua den irakurtzen eta idazten ikastea, komunikatu ahal izateko. Eskatu sortzeko beste mezu posible batzuk, eta egin ditzatela kartelak material fotokopiagarriekin.

Egin irtenbide posibleen ideia-jasa bat. Hona hemen adibide batzuk: ontzi eta babesgarri gehiegi dituzten produktuen kontsumoa murriztea, behar ez dugun gauzarik ez kontsumitzea eta abar, horrela zabor gutxiago sortuko baitugu. Ondoren, eskatu haurrei sor ditzatela taldeka hitz batzuk ebakigarriekin, eta itsats ditzatela itsasoa irudikatzen duen orriaren gainean (arrainak idazteko erabili zuten orriaren gainean).

Idatzi zerrenda batean itsasoa garbitzen laguntzeko zenbait ekintza:

behar ez ditugun gauzen

kontsumoa murriztea,

berrerabilitzea, egoki birziklatzea...



1. ERANSKINA. AQUATIKA



GURE ISTORIAO ITSASO TXIKI BATEAN GERTATZEN DA. ITSASO HORI OZEANO ATLANTIKOAN DAGO, HAU DA, AMERIKA AFRIKAREKIN ETA EUROPAREKIN LOTZEN DUEN UR ZATIAN.

Itsaso honetan nahiko pozik bizi dira hainbat animalia: arrain handi eta txikiak, ugaztun erraldoiak eta beste txikiago batzuk, arrantzatzeko uretan murgiltzen diren itsas hegaztiak, itsas izarrak, itsas trikuak, itsas zaldia... Itsas pepinoak eta itsas tomateak ere badaude, eta jakina, baita narrastiak ere, hala nola gure protagonista... **IRINA,**

DORTOKA OLIBAKARA. eta haren aita, Wilber, hura ere dortoka olibakara.

Irinaren ama, ordea, Lena deritzona, dortoka berdea da; eta lan txikia, berriz, karey dortoka... Izan ere, dortoka mota ezberdinak daude, baina gauza askotan denak berdinak dira.

Adibidez, etxearen eta familiaren zaintza-lanez arduratzean. Egunero Wilberrek dagokien itsas zatia garbitzen du; astean behin familia osoak garbiketa sakona egiten du elkarrekin, eta hilean behin **"GARBIKETA HANDIA"** deitzen dutena egiten dute.

–Amorregarria da –dio Wilberrek–. Garbitu eta garbitu eta garbitu eta garbitu ibili arren... egunero zikinkeria gehiago sartzen da. Itsasoa zaborrez betetzen ari da! Nondik dator zabor hau? Hirietatik helduko da, ziur!

Irinak lagun-talde bat du, eta denek oso gustuko dute ozeano-txiki-parkean jolastea. Han, ur-zabuetan ibiltzen dira, eta itsas animalia zaharrenek kontaktzen dizkieten ipuinak ere entzuten dituzte: "Legatztxo gorria", "Zazpi hegaluzeak eta otso-arraina", "Arrainlingo txirularia", "Sirenatxoa", eta beste asko. Gainera, kontaktzen diete duela

gutxi arte haien itsasoa sarria zela, baso ugari zeudela algaz eta koralez osatuak, anemonaz, belakiz...

Hori hala izan zen, pertsonak bizi diren portu txikia hiri handi bilakatu zen arte. Orain, itsasoko izaki bizidun guztiek kontu handiz ibili behar dute goitik erortzen diren zaborrekin. Parkera doazenean ere, kontu handiz ibili behar dute, gero eta istripu gehiago gertatzen baitira, izaki txikienei batez ere: batzuk laten eraztunetan harrapaturik geratzen dira; beste batzuek plastikozko poltsak jaten dituzte, marmokak direlakoan, eta ito egiten dira; badira zikinkeriekin pozoitzen direnak ere, eta txapapotean harrapaturik geratzen direnak...

Desastre hutsa! Behin, lan plastikozko botila batean harrapaturik geratu zen, eta ezin izan zen atera...

Bere familiarentzat gehiegizkoa izan zen; kokoteraino zeuden, guztiz suminduta.

Beraz, Lenak bere lagunei deitu zien, eta haiek beren lagunei, eta haiek ere beren lagunei... eta denek elkarrekin zer neurri har zitzaketen erabakitzeke, batzar bat egin zuten. Irinak, bere amak egindakoa ikusirik, bere kuadrillako lagunei deitu zien, eta haiek beren lagunei deitu zieten, eta haiek ere beren lagunei... eta auzoko haurren bilera egin zuten. Han, zenbait erabaki hartu zituzten:

–Ur-azalera igoko gara, eta gizakiei esango diegu uzteko itsasoa zikintzeari eta gauza arriskutsuak jaurtitzeari. Eta martxan jarri ziren.

–Marrazoek jan ez gaitzaten, goazen denok elkarren ondo-ondoan.

–Hori da, elkarren ondo-ondoan, elkarren ondo-ondoan.

Idazten ikasten ari zirenez, unetxo batez azalera atera ziren, hondartzatik eta zerutik ikusteko moduko mezu bat uzteko: **ASKI**

DA. ITSASOA GARBI NAHI DUGU.

Jende mordoa zetorren hiriko txoko guztietatik, itsas azalean irakur zitekeen mezu ikaragarri hura ikustera. Lenak eta haren lagunak, bestalde, hiriko zaborrak ekartzen zituen isurbidea ixtea erabaki zuten.

–Horrela, ezingo dizkigute beren zaborrak itsasora bota.

–Hori da. Horrenbeste zabor sortzen badute, gera daitezela harekin.

Wilber eta haren lagunak etxe eta kaleak garbitzen geratu zirenez, laster itsasoa

xarmagarri geratu zen, landareak eta koralak oraindik sendatuko ez baziren ere.

Ostera, hirian, dena zaborrez betetzen hasi zen...

–Zer ari da gertatzen? –entzuten zen edonon.

–Zer da hau? –oihukatzen zuten harriturik.

–Gure zaborra da! Jada ezin dugu itsasora bota. Zer egingo dugu? –galdetzen zioten beren buruari.

Horregatik, hiriko haurrek batzar bat egin zuten, ipuin hau entzuten ari zairenenok osatzen duzuen bezalakoa, eta egoera hura amaitzeko zer egin erabaki zuten...

...BERAZ, PENTSATZEN ARI ZARETEN HORI GUZTIA EGITEA ADOSTU ZUTEN...

–Zer uste duzue egin daitekeela?

Egilea: Guillermo Aguado de la Obra. Irudigilea: Joly Navarro. Aquatika, Interred 2018.
<https://www.interred.org/es/recursos/aquatika>



SALBA DITZAGUN OZEANOAK!

#HAMAZOZO

www.cme-espana.org
HEZKUNTZAREN
Aldeko Mundu-kanpainia

6-8 urteko
haurrentzako jarduera

OZEANOA ERALDATU

Iraupena: 50 minutu.

Materialak: eskutitzak (1. eta 2. eranskinak), oihal-zati urdin bat (ozeanoak, ibaiak eta estoldak egiteko), kutxa bat, ontzi birziklatuak (ikasleek ekarriak), soka/haria (kanaberak egiteko), txartelak (3. eranskina), iman txikiak, ekimenak (4. eranskina), hatz-margoak, 4. GIHaren logoa (5. eranskina).

Helburuak: 1. 14. GIHaren bitartez ozeanoen egoera zein den jakitea: Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarrian erabiltzea, garapen jasangarriari begira.

2. Ikasleek ulertzea bakoitzak bere eguneroko bizitzan aldaketak eginez lor daitekeela jasangarritasuna.

3. Hezkuntza errealitatea eraldatzeko oinarrizko tresnatzat hartzea, eta ozeanoak zaintzeko konpromisoa hartzea.

GARAPENA

IRAKASLEEN AURRETIKO LANA

Arlo guztietarako jarduera (Plastika - Arts&Crafts-erako gomendatua).

1. urratsa: Irakasleari eskutitz bat helduko zaio ikasgelara (1. eranskina). Eskutitza irakurri ondoren, ikasleei esango die ekar ditzatela etxetik zakarontzira botatzen dituzten edukiontziak, Lutxi eta Lutxori laguntzeko asmoz (familiek parte hartzea bultzatu nahi da).

2. urratsa: Ikasleek edukiontziak kutxa batean sartuko dituzte.

3. urratsa: Irakasleak ibaiak, estoldak eta ozeanoa margotuko ditu oihalean, zikin-zikin¹. Haietan, edukiontziak eta txartelak kokatuko ditu. Edukiontzien, kanaberek eta txartelek (3. eranskina) iman bat izango dute. Ozeanoa, kanaberak eta 2. eranskina kutxa berean sartuko ditu.

¹ Ibaiak jarrita, ibaietako ura ere ozeanora iristen dela irudikatu nahi da. Ikasleek ezagutzen dituzten berezko izenak jar daitezke (Mediterraneo itsasoa, Ebro ibaia...) / Ozeanoa gerora garbitu ahal izateko moduan "zikintzea" komeni da, edo behintzat, 4. zatia burutzean, buelta eman oihalari, berrerabiltzeko.



JARDUERAREN EGUNEAN

1. ZATIA. OZEANOA GAIXO DAGO. ESKUTITZA IRAKURTzea (2. ERANSKINA)

Ikasgelara iristean, irakasleak aurrez prestaturiko kutxa topatuko dute ikasleek. Kutxa ireki, eta ozeanoa lurlean kokatuko dute. Ozeanoaren inguruan biribilean eseriko dira. Irakasleak hau esango du: Gogoratzten dituzue aurreko egunean ekarritako edukiontziak? Begira nola dagoen ozeanoa². Ondoren, kutxan iritsitako eskutitza (2. eranskina) irakurriko du.

2. ZATIA. EDUKIONTZIAK BILTzea ETA TALDE-LANA

Eskutitzaren lehen zatia irakurri ondoren (2. eranskina), irakasleak **egoera hau ZITU BIZIAN aldatu beharra dagoela** esango die ikasleei. Honela galdetuko die:

- Zer egin dezakegu hemen dugunarekin?

Galdera eta ideiak bideratuko ditu, ikasleek lehenik eta behin ozeanoko zaborra arrantzatu/bildu dezaten. Horretarako, 4 taldetan banatuko dira. Talde bakoitzak edukiontzi kopuru bera eta txartel bat arrantzatu/bildu beharko ditu. Talde guztiek amaitzean, eseri egingo dira, eta bildutako txartela eta arrantzatutako edukiontziak erakutsiko dizkiote elkarri.


3. ZATIA. TXARTELAK ERALDATzea, POSITIBO BIHURTZEKO

Eskutitzaren bigarren zatia (2. eranskina) irakurtzen jarraituko duzue. Amaitzean, txarteletako datu negatiboak datu positibo bihurtu beharko dituzte, **nolako ozeanoa amesten dugun pentsatuz**.

Horretarako, ikasleek adostutako ideiak idatz ditzake irakasleak, eta 4. zatian margotu ditzatela gogorarazi.

4. ZATIA. GURE AMETSETAKO OZEANOA SORTzea ETA EGUNEROKO BIZITZAKO EKINTZAK

Eskutitzaren hirugarren zatia irakurri ondoren (2. eranskina), irakasleak gela osoan zehar zenbait gauza bilatzera animatuko ditu ikasleak; hain zuzen ere, hauek aurkitu behar dituzte: ekimenak (4. eranskina), 4. GIHaren logoa (5. eranskina) eta margoak (aurrez ezkutatu dira). Gero, eskutitzaren laugarren zatia irakurtzen jarraituko dute (2. eranskina).



Eskua hatz-margoz bustita, arrain bat marraztu daiteke (5. eranskina). Gainera, edukiontziak eraldatu beharko dituzte (moztuz, margotuz...), ozeanoari bizia emango dioten elementuak izan daitezen: itsas ekosistemako izaki bizidunak edo bestelako elementuak (uharriak, arrainak, aukak, baleak, moluskuak...). Amaitzeko, ekimen guztien inguruan hitz egingo dute:

- Ezagutzen zenituzten ekimen hauek? Martxan jar ditzakegu?

² Edukiontzi guztiak jarri ez badira, jarritakoak ozeanora iristen diren plastikoak direla azalduko da. Gainerakoak birziklatu egin dira.

1. ERANSKINA. LUTXI ETA LUTXOREN ESKUTITZA

_____ maitea*:

Zuregana jo dugu, arazo larri bat dugulako eta laguntza behar dugulako. Irakaslea zarela entzun dugu, eta ume zoragarri pila ezagutzen dituzula, biziari buruz asko ikasten ari direnak eta egunero mundu hobea eraikitzen ari direnak.

Itsasoan oso egoera larria bizi dugu. Zure laguntza eta ikasgela osoarena behar dugu. Indarrak batu behar ditugu! Orain ezin dizuegu gehiago kontatu, baina gauza bat eskatu behar

dizuegu: etxean zakarrontzira botatzen dituzuen edukiontziak biltzeko, hala nola jogurt-potoak, latak, esne-kutxak... Eta hori egiten baduzue, laster izango duzue gure berri.

Berriro esango dizuegu: mesedez, ozeanoek zuen laguntza behar dute!

Besarkada handi bat,
Lutxi eta Lutxo

*Irakaslearen izena

2. ERANSKINA. OZEANOAREN ESKUTITZA

LEHEN ZATIA

_____ ikasgela maitea*:

Sakonetik eta azaletik idazten dizuet, zeruertez eta itsasertzetik, lasaitasun eta aztoramenetik. Izen asko dituzte: Mediterranea, Kantauri, Atlantikoa... Hori da, bai, Ozeanoa naiz, baina zuek gustukoena duzuen moduan dei diezadakezue.

Mende askotan zehar, zuek –gizakiok– eta ni harmonian bizi izan gara elkarrekin; nire baitan bizi diren izakiez elikatu zarete, nirekin jolasean freskatu zarete eta ongi pasatu duzue, nire botere sendagarriekin sendatu zarete... eta beste hainbat gauza. Baina urte batzuetatik hona, hori aldatzen ari da. Horregatik idazten dizuet.

Lutxik eta Lutxok esan didate zuekin fida naitekeela eta lagunduko diezue. Hara ba, oso gaixo nago, azken urteotan gauza asko jaso ditudalako, eta jan ezinik eta gaixorik utzi nautelako. Hau oso kaltegarria da niretzat eta itsaspeko izaki guztientzat, baina baita lehorrean bizi zareten izaki guztientzat ere.

Azalduko dizuet: pertsonen plastikoa asko erabiltzen duzue egunero; adibidez, jaten duzuen janaria biltzen duena, gauzak eramateko poltsak, jostailu batzuk... Nik badakit pertsona gehienok birziklatzen duzuela, baina batzuetan plastikoa horiek lurrera botatzen dituzue, eta euriak edo haizeak niganaino ekartzen dituzte. Bada zuzenean ibaietara edo itsasora zaborra botatzen duen jendea ere.

Plastiko pila dago, eta arrainak, dortokak, izurdeak, hegaziak... bertan harrapatuta gelditzen dira, edo janaria dela uste dute, eta jan eta hil egiten dira. Plastikoa ozeanoak gaixotzen ditu! ***(1. txartelarekin lotuta)**

Badago beste zikinkeria mota bat ere, izugarri gaixotzen nauena eta ikusten ez dena. **Gai kimiko eta toxikoak,** alegia. Zeinen hitz arraroak, ezta? Tira, ba, gai kutsagarri horien ondorioz, nire ura gaixotu egiten da, eta zuek bainatzera zatoztenean, zuen azala eta begiak ere gaixotu egin daitezke, bai eta itsasoan bizi diren izaki bizidun guztiak hil ere.

Gai horiek gasolina, xaboiak, kremak... dira. Itsasontzietatik, hoteletatik, zuen etxeetatik... eta baita fabriketatik ere iristen dira nigana. Adibidez, ehun-fabriketan produktu kutsatzaile horiek erabiltzen dituzte ehunei kolorea emateko, eta sobera geratzen zaiena

ibaietara edo nigana botatzen dute. Gai toxikoez ozeanoak gaixotzen dituzte! ***(2. txartela)**

Lagunok, guztiz babesgabe nago. Maite ez nauten pertsonak nitaz baliatzen dira, besteak beste gehiegizko arrantzaren bidez. Zer da gehiegizko arrantza? **Gehiegizko arrantza behar baino arrain gehiago arrantzatzea da.** Hori dela eta, nigan dagoen bizia desagertzeaz gain, nirekin miihilaka mendetan hain ondo moldatutako artisau-arrantzale horiek lanik gabe geratzen dira. Ai... zeinen gutxi diren gaur egun kostaldeko herrietan entzuten ditudan abesti zaharrak, edo ilunabarrean laztantzen nauten txalupa txikiak. Gehiegizko arrantzak ozeanoak gaixotzen ditu! ***(3. txartela)**

Ikus dezakezue, nire egoera larria da. Oso-oso gaixo nago, eta gainera, tristura eta min handia dut. Azken urteetan, **persona asko hil dira ni zeharkatzeko saiakeran, beste lurralde batean bizitza hobearen bila zihozela.** Egunero irteten dira ontzi txikiak, batere seguruak ez direnak, Mediterraneo itsasoa zeharkatzeko prest. Egunero-egunero, pertsona askoren bizia arriskuan dago itsasoa! ***(4. txartela)**

Zuen laguntza behar dut, egunetik egunera okerrago nago-eta... Egoera oso larria da! Lagunduko didazue, mesedez?

*Ikastaldearen izena (2.B, adibidez)

SIGARREN ZATIA

Zeinen ideia ona izan duzuen! Mila esker! Zuek bezala, beste jende asko ere ibiltzen da nire barnera botatako zaborra biltzen, eta horrela, asko garbitzen naute. Baina hori ez da nahikoa, txarteletan ikusten duzuen bezala, nire barnean gauza asko gaizki baitago oraindik. Lagunduko al didazue horiekin ere?

HIRUGARREN ZATIA

Zeinen ideia onak bururatzen zaizkizuen! Baina amestea edo pentsatzea ez da nahikoa... martxan jarri behar ditugu! Ideia on horiekin eraldatu behar nauzue. Tira, baina

konturatu naiz ez duzuela oso gauza garrantzitsu bat kontuan hartu, ni eraldatu eta sendatu ahal izateko beharrezkoa duzuen zerbait. Ez dituzue beharrezko "tresnak" hartu... Denbora honetan guztian hemen egon den zerbait behar duzue... edonon dago, baina batzuetan ez gara ohartzen...

LAUGARREN ZATIA

Hori da! Hezkuntza! Ohartu zarete edonon dagoela? Eskolan, etxean, kalean, telebistan...



© Ayuda en Acción

HEZKUNTZA DA MUNDUA ERALDATZEKO BEHAR DUGUNA!

Ez ahaztu inoiz: toki guztietan mundu hobea eraiki ahal izateko ikasten ari zarete, mundu horretan denok elkarrekin bizitzeko eta elkar errespetatu eta zaintzeko!

Mundu garbi eta osasuntsua izango da, zuek nirekin eta nik zuekin gozatzeko modukoa, inoren bizia arriskuan jarri gabe: ez nirea, ez planetarena, ez eta bizidun bakar batena ere! Beraz, orain hezkuntzaren altxorra eskuetan duzuela, senda nazakezue! Ekin lanari!

Opari gisa, gaurtik aurrera Mundua sendatzeko praktikan jar ditzakezuen ideia batzuk uzten dizkizuet.

Mila esker laguntzeagatik, lagunok!

Besarkada handi bat,
Ozeanoa

3. ERANSKINA. TXARTELAK

© Troy Mayne-Oceanic Imagery 2017



1. TXARTELA: Urtero 8 milioi tona **plastiko** iristen dira batez beste gure itsaso eta ozeanoetara. Plastikoa hori uretan geratzen da, eta urte asko behar ditu deskonposatzeko. Itsasoan bizi diren animaliek plastikoa horiek jaten dituzte, edo bertan harrapatuak geratzen dira, eta horren ondorioz hil egiten dira.

© Greenpeace



2. TXARTELA: Hoteletatik, itsasontzietatik, etxeetatik, fabriketatik... isurtzen diren **gai toxikoak** ozeanoak kutsatzen dituzte, eta kalte handia eragiten dute bai bertan bizi diren izaki bizidunengan eta bai pertsonen osasunean. Ehungintza da jarduerak kutsagarrietako bat, erabiltzen dituzten tindagai toxikoak uretara isurtzen baitituzte.

© Roger Grace/Greenpeace



3. TXARTELA: Gehiegizko arrantzak edo arrantza industrialak behar baino animalia gehiago arrantzatzen ditu, eta hala, ekosistemak hondatzen ditu. Gehiegizko arrantzaren ondorioz, hainbat espezie desagertzen ari dira, hala nola ezpata-arraina, eta espezieez gain, baita artisauek ere, eta horrekin batera, kultura oso bat eta lanpostu asko ere bai.

© Sergi Cárstara



4. TXARTELA: Egutero, pertsona askok Mediterraneo itsasoa gurutzatzen dute, beste lurralde batean bizitzera hobe bilatzeko. Ontziak txikiak dira, eta ez dira batere seguruak; eta bidaiak luzeak, hotzak eta gogorra da. Horregatik, pertsona asko hil dira saiakeran.

4. ERANSKINA. EKIMENAK



EROS DITZAGUN
JASANGARRITASUN-ZIURTAGIRIA
DUTEN ITSAS ELIKAGAIAK!



ETXEAN ETA HONDARTZAN,
PRODUKTU BIODEGRADAGARRIAK
(xaboiak, kremak...!)



© Entreculturas

ONGI TRATATU PERTSONA GUZTIAK
ETA HAIKIN JOLASTU,
JATORRIA DENA DELAKOA IZANDA ERE!



BEHARREZKO EZ DIREN BILGARRIRIK EZ
JAKIENTZAT, LASTO BERRERABILGARRIAK,
ETA HAMAIKETAKOAK OIHALEZKO
POLTSETAN! PLASTIKORIK EZ!

5. ERANSKINA



6. ERANSKINA



SALBA DITZAGUN OZEANOAK!

#HAMA2020

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra



www.cme-espana.org
HEZKUNTZAREN
Aldeko Mundu-kanpainia

 GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

 EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

9-11 urteko haurrentzako jarduera

PLASTIKOAK KANPORA ONARTU ERRONKA!

Iraupena: 2 ordu baino gehiago. Zenbait saiotan antolatuko da, eta lana taldetan banatu daiteke.

Materialak: ordenagailua, proiektorea, deskargatutako bideoak edo Interneterako konexioa, eta birziklatutako materialak.

Helburuak: 1. Gure haurren ingumenarekin lotutako erabakiak hartzeko konpetentziak hobetzea, gai izan daitezen ondo informatuta erabaki hobeak hartzeko.

2. Gure haurrak kontzientziaztea zeinen garrantzitsua den mundua eraldatzeko geure inguruan jardutea.

3. Gure haurren kontsumo-ohitura arduratsuak sustatzea, eredu jasangarri bat lortzeko.

4. Gure haurrak inplikatzeta, aldaketa jasangarriaren eragile bilakatu daitezen.

GARAPENA

Gure ikasleekin lantzeko 4 ekintza proposatzen dira. *Mundua buruan, ekin inguruan* esaldia dugu abiapuntu, eta bide horretan garatuko dira jarduerak.



1. EKINTZA

PLASTIKOEK ETA OZEANOAK DUTEN LOTURARI BURUZKO EZTABAIDA

Gure hurrekin lanean hasteko, landu beharreko gaia bideo-forum baten bidez aurkeztea proposatzen dugu.

Bideoak eta film laburrak oso hezkuntza-baliabide onak izan daitezke, hainbat kontzeptu eta jarrera garatzen baitituzte, ezagutzak modu erakargarrian eta taldean zabaltzeko; hori gertatzen da, bereziki, gizarte intereseko gaiak islatzean dituztenean, kontzeptuak barneratzea, hausnartzea eta nork bere iritzia eratzeko sustatzeko.

Bideo-foruma, beste edozein hezkuntza-baliabide bezala, komunikaziorako aproposa izango den giro lasai batean egin behar da.



Hasteko, **Lemon** film laburra jar diezaiekegu: bideo horrek metaforikoki azaltzen du nola sartzen den gizakiek sortutako kutsadura indarrez naturan. www.youtube.com/watch?v=0e2zK0v2XPA

Oso garrantzitsua da eztabaida gidatzea. Interesgarria da haurrak taldeka banatzea eta beren iritziarekin bat ez datorren iritzi bat defendatu behar izatea; adibidez: norbaitek uste badu etxean erabiltzen dugun plastikoak

ez duela ondoriorik itsasoan, jar dadila ekologista baten azalean eta defenda dezala haren iritzia.

Hona hemen gaia lantzeko lagungarriak diren beste **bideo** batzuk, edo eztabaida garatzen den heinean jar ditzakegunak:

Hondakin plastikoak itsasoan:
<https://bit.ly/31xMQzH>

“Un Océano de Plástico”:
<https://bit.ly/2SD5ZML>

Planeta babesteko Greta Thunbergen kanpainaren bideoa:
<https://bit.ly/2UyvuRG>



2. EKINTZA

ZEU ZARA ALDAKETA, “ERRONKA: PLASTIKOA MURRIZTEA”

Ekintza honi ekiteko, galdera hauek egingo dizkiegu ikasleei:


- Zenbat plastiko erabiltzen duzu egunean?
- Ba al duzu kopuru hori murrizterik?
- Landu zeure erantzuna:
 - Nola ekartzen duzu zure hamaietakoa eta/edo askaria eskolara?
 - Ur-botila berrerabilgarria duzu edo erabilerak bakarreko plastikozko botilak erabiltzen dituzu?
 - Tetrabriketan datorren zukua hartzen duzu? Zer iruditzen zukua etxean egin eta botila birziklagarrietan gordetzen baduzu?
 - Kotxez zatoz eskolara? Oinez edo bizikletaz etor zaitezke?

Behin ikasleek beren hausnarketa eginda, birziklatuz zer lor daitekeen ikusteko, baliokidetasunen eta datuen taula hau aurkez diezaiekegu.

<https://bit.ly/3b1R5CP>

Bideo honetan, gure eguneroko bizitzan hondakin plastikoak murrizteko ekintzak proposatzen dizkigute:

<https://cnn.it/2H1gIR9>



Behin arazoa aurkeztuta, gure inguruan (eskolan, familian, komunitatean...) plastikoak murrizteko erronka bat antolatuko dugu. Zenbait edukiontzi prestatu behar dira, plastikoak han botatzen joateko, gerora

birzikla ditzaten. Katgoria ezberdinak antola daitezke, eta denbora mugatu batean plastiko gehien bildu duen taldearentzat sari bat prestatu (birziklatua).



3. EKINTZA

NIRE AUZOAK MUNDUARI EUSTEN DIO

Abiarazi zeuen kanpaina, ikus dadin zer kalte eragiten dituen plastikoaren erabilerak itsaso eta ozeanoetan, eta haien ekosistemetan.

Antolatu atea zabaltzeko jardunaldi bat, **honi buruz sentsibilizatzeko:**

- 5 arauen garrantzia (Baztertu, Murriztu, Berrerabili, Birziklatu, Konpondu).
- Bertako produktuak kontsumitzea, beste toki batzuetatik ekartzeak kutsatu egiten baitu.
- Erosten dugunaren eragina (barazki eta frutak edukiontzietan erostearen eragina, adibidez).

- Poltsak erabili ordez, erosketak eramateko tresna ekologikoagoak erabiltzea.
- Plastikozko poltsen ordez, ontziratu gabeko produktuak erostea eta sareko poltsa berrerabilgarrietan eramatea.
- Xanpuak eta gelak botiletan erosi beharrean, xaboi-pastillak erostea, gutxiago kutsatzen baitute.
- CO² isurpenak eta energia kontsumoa murriztea.

BAZTERTU
MURRIZTU
BERRERABILI
BIRZIKLATU
KONPONDU



**Bururatzten zaizu beste ideiarik?
Jarri martxan!**



4. HONDAKINEN BIRZIKLATZE-TAILERRA: SORTU ZEURE HIRI-BARATZEA

“Erronka: Plastikoa murriztea” izeneko ekintza baliatuz, eta bildu ditugun edukiontziak erabiliz, gure inguruan hiri-baratze bat egingo dugu.

Informazio gehiago nahi duzu? Hona hemen ideia batzuk:

Jardinius:

<https://bit.ly/384x0iA>

Elangreen:

<https://bit.ly/2H4wpRT>

Igorri itsasoa errespetatu beharraren mezua ikaskide eta inguruko guztiei.

Eta garrantzitsuen! Kostaldean bizi bazara... antolatu kostaldeak garbitzeko proiektu bat!

Lagundu Nazio Batuen Ingurumen Programari (NBIP) eta #itsasogarbiak kanpainari beren helburua lortzen: 2022rako ozeanoetan gai plastikoak desagertu daitezela lortzen, alegia. Informazio gehiago esteka honetan: <https://news.un.org/es/story/2017/02/1374211>

Utz dezagun itsasoa guk topatu baino hobeto.

EBALUAZIOA

Ekintza hauek ebaluatzeko, aurrera eraman ote diren ikusi behar dugu. Nolakoak izan da gauzatzeko-prozesua? Aurreikusitako helburuak bete dira? Gure ikasleek mezua barneratu dute? Plastikoen eguneroko erabilera izan al da jarrera-aldaketarik? Ikasgelako zakarrentzian plastikozko ontzien kopuru bera agertzen da edo kopurua murriztu da?

IRAKASLEENTZAKO BALIABIDEAK

Ez galdu artikulu hau: **Ozeanoen 2019ko Mundu mailako Eguna: generoa, plastikoak eta GIH:** <https://geoinnova.org/blog-territorio/dia-mundial-oceanos-2019/>



SALBA DITZAGUN OZEANOAK!

#HAMA2020

Nafarroako Gobernua  Gobierno de Navarra



www.cme-espana.org
HEZKUNTZAREN
Aldeko Mundu-kanpainia

 GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACION PARA
EL DESARROLLO

 EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

12-16 urteko gaztetxoentzako jarduera

GURE MUNDUARI EUSTEN

Iraupena: 2 jarduera, bakoitza ordubetekoa.

Materialak: gailu elektronikoak Internetarako konexioarekin, eta material suntsikorak (borragoma, arkatza, kartoi mehea, orriak...). Jarduera ongi egin ahal izateko, irakasleek gaiari buruzko informazio-baliabideak dituzte (Ikus 1. eranskina).

Helburuak: 1. Itsaspeko biziaren kutsaduraz sentsibilizatzea, eragiten dituen ondorioak ekidin eta murriztearren.

2. 12-16 urteko gazteei 4., 13. eta 14. GIHen berri ematea.

3. Ikasleek bizi-ohitura berriak hartzea, ingurumenaren jasangarritasuna sustatzeko.

4. Jasangarritasunean heztea, itsas ekosistemak eta kostaldekoak modu jasangarrian babesteko estrategiak sustatzeko.

GARAPENA



1. SAIOA

1. HASIERAKO GALDEKETA IKASLEEI, 4., 13. ETA 14. GIH-ËI BURUZ

Aurretik zer dakiten jakiteko (ikus 1. eranskina). Eskura ditugun baliabide materialen arabera, hainbat modutara landu daiteke:

- **Arbelean proiektatuta.** Eskua altxatuz, irakasleak aurkeztutako baieztapen bat egia ala gezurra den esan beharko dute ikasleek.
- **Taldea bitan banatuta.** Irakasleak baieztapen bat ozen irakurri, eta ikasleek talde batean edo bestean kokatu beharko dute: gezurra dela uste badute, ezkerraldean; eta egia dela uste badute, eskuinaldean.

• **Galdeketa inprimatua.** Bakarka betetzeko galdeketa bana izango dute ikasleek.

Jarduera betetzeko denbora 10-20 minutukoa izango da.

GALDEKETAREN EMAITZAK

1. Egia	8. Egia
2. Gezurra	9. Gezurra
3. Egia	10. Egia
4. Egia	11. Gezurra
5. Gezurra	12. Egia
6. Egia	13. Egia
7. Egia	14. Egia



2. BIDEOEN PROIEKZIOA

Landu beharreko gaiari sarrera emateko, 2030 Agendarekin eta 4., 13. eta 14. GIHekin lotutako zenbait bideo ditugu.

Iraupena 10 minutukoa izango da.

Bideoak esteka hauetan aurki daitezke:

12-14 urte:

Acciona. (2016). ¿Qué son los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS)? (Bideo-fitxategia).

Hemen:
<https://bit.ly/2vh7vMb>
(Iraupena 1:44).

UNESCO (UNESCO Etxea-Centro UNESCO del País Vasco). (2018). 4. GIHa | Kalitate oneko Hezkuntza.

Hemen:
<https://bit.ly/2tG8DJ4>
(Iraupena 2:22).

UNESCO (UNESCO Etxea-Centro UNESCO del País Vasco). (2018). 13. GIHa | Klima babesteko Ekintza. (Bideo-fitxategia).

Hemen:
<https://bit.ly/2vfBCE4>
(Iraupena 2:00).

UNESCO (UNESCO Etxea-Centro UNESCO del País Vasco). (2018). 14. GIHa | Uretako bizitza. (Bideo-fitxategia).

Hemen:
<https://bit.ly/39r7MLF>
(Iraupena 1:56).

15-16 urte:

Fundación Internacional y para Iberoamérica de Administración y Políticas Públicas. (2019) ¿Qué es... la Agenda 2030?

Hemen:
<https://bit.ly/2UztXLs>
(Iraupena 3:45).

Ineco. (2019). ODS 4: Educación y calidad. (Bideo-fitxategia).

Hemen:
<https://bit.ly/31yc80B>
(Iraupena 2:34).

Cebek Bizkaia. (2018). 13. GIH: Klimaren aldeko Ekintza. (Bideo-fitxategia).

Hemen:
<https://bit.ly/2SssVho>
(Iraupena 1:23)

Mimook Shop. (2017). Residuos plásticos en el mar. (Bideo-fitxategia).

Hemen:
<https://bit.ly/2OBfhHM>
(Iraupena 1:47)

3. EZTABAIDA

Bideoen proiektzioa amaitzean, tutoreak zenbait galdera egin ditzake, bai ikasleen aurre-ezagutzak eta bai bideoetako edukiak osatzeko.

30-40 minutu beharko dira jarduera burutzeko.

Hona hemen bideoak ikusi ondoren **eztabaida sortzeko galderak:**

- Eguneroko zer ohitura txarrek egiten diote kaltea itsaspeko biziari eta gure planetari?
- Zer anomalia sorrarazten ditu klima-aldaketak?
- Zer estrategia erabil ditzakegu ozeanoei osasuna itzultzeko?
- Zergatik uste duzue kliman sortzen diren aldaketek kalte egin diezaieketela pertsoneri? Eta ekonomiari? Zer neurritan egiten diote kalte itsaspeko biziari ere?



2. SAIOA

1. TALDEAK OSATZEÄ (ordu 1eko iraupena)


Taldeak modu orekatuan osatuko dira, gelako ikasleen kopurua kontuan hartuta, eta haien lehentasunen arabera, irakasleak nahi badu.

2. SENTSIBILIZAZIO-TRESNA BAT SORTZEÄ

Talde bakoitzak publizitate-iragarki bat, komiki bat, Power Point bat, storyboard bat edo dekalogo bat (10 jarraibide edo hobekuntza) egin behar du. Bertan, 4., 13., 14. GIHen garrantziaz motibatu eta helburu horiek lortzen laguntzeko animatu eta konbentzitu egin beharko dituzte herritarrak, edo "Gure plastikoaren bidaiaz" ohartarazi.

Era berean, hautatuko gaiaren beste ikuspegi batzuk ere proposa ditzakete ikasleek. Ondoren, gelan aurkeztu edo proiektu daiteke.

- 4., 13. eta 14. GIHein lotutako zer erronka bete behar dira, garapen jasangarri egokia lortzeko?
- Horrekin lotuta, zer neurri hartu beharko liriteke berehala, gure auzo, hiri edo lurraldean garapen jasangarria lortzeko?
- Ba al dakizue zer diren mikroplastikoak? Saiatu definitzen.
- Birziklatzearekin nahikoa dela uste duzue edo haratago joan behar dugu, adibidez plastikorik ez kontsumitzen saiatuz?
- Zer kontsumo-ohitura alda ditzakegu norberaren bizitzan, taldean eta gure inguruan?
- Ezagutzen al duzue plastikoaren alternatibarik?



Hauek dira baldintzak:

- Komikiaren luzera gehienez ere folio batekoa izango da –bi aldeetatik–. Komikia eskuz edota aplikazioren bat erabiliz egin daiteke, hala nola Pixton edo Manga Toon erabiliz.
- Power Pointak 5 diapositiba izan behar ditu gehienez.
- Iragarki bat egitekotan, luzera minutu batekoa izango da gehienez.
- Iragarkia egiteko aplikazioak powtoon, videoscribe, moovly edo wideo.co dira.

• *Storyboard* bat egiteko aplikazioak Boords, storyboard creator edota ikasleek berek ezagutzen duten antzekoren bat izan daitezke.



EBALUAZIOA

Hasierako galdeketa: 4., 13. eta 14. GIHei buruz ikasleek aurretik zer dakiten jakiteko.

Peer to peer edo binakako ebaluazioa: osatutako taldeek, ebaluazio-txantiloit batetik abiatuta (ikus 3. eranskina), beren ikaskideen sentsibilizazio-tresnak ebaluatuko dituzte.

Talde bakoitzak izenik eman gabe egingo du ebaluazioa, eta irakasleari orri zuri batean emango diote. Bertan, lana *bikaina, ona, onargarria edo ez-nahikoa* den azalduko da,

SALBA DITZAGUN OZEANOAK!

#HAMAZOZO

iritzi horren arrazoia azalduta. Hautatutako taldeari edo taldeei aukera emango zaie beren lana ikastetxeko gainerako ikasleei aurkezteko.

1. ERANSKINA. IRAKASLEENTZAKO BALIABIDEAK

• **Chisnall, R., Murray, K., Volain, N., Church, E., Timmers, K., Williams, J. Ziegenfuss, R. (n.d.).** *El libro de los ODS (Objetivos de Desarrollo Sostenible)* (PDF fitxategia).

Hemen: <https://innovationsdglab.com/sites/default/files/download/global-goals-book-spanish.pdf>

• **GreenPeace México (2019).** *Enfermedades causadas por el cambio climático. ¿Sabes cuáles son?*

Hemen: <https://bit.ly/2S8RNMq>

• **Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa eta Herri Lanen Ikasketa eta Ikerketa Zentroa (n.d.).** *Estudio sobre cuantificación de microplásticos e identificación de posibles medidas para su reducción en la fuente* (PDF fitxategia).

Hemen: <https://bit.ly/2SoWZuu>

• **Nazio Batuak (2015).** *Memoria del Secretario General sobre la labor de la Organización* (PDF fitxategia).

Hemen: <https://undocs.org/es/A/70/1>

• **Sánchez de Madariaga, I., García López, J., Sisto, R. (2018).** *Mirando hacia el futuro: ciudades sostenibles. Los Objetivos de Desarrollo Sostenible en 100 ciudades españolas* (PDF fitxategia).

Hemen: <https://bit.ly/386O47z>

• **Nazio Batuak (2015).** *Transformar nuestro mundo* (PDF fitxategia).

Hemen: https://unctad.org/meetings/es/SessionalDocuments/ares70d1_es.pdf

Oviedoko Unibertsitateko Irakasleen Formakuntza Fakultatean *Lankidetzarako Hezkuntza eta Giza Garapen Jasangarria* ikasgaia lantzen ari diren ikasleen laguntzari esker prestatu ahal izan da jarduera hau.

2. ERANSKINA

BAIEZTAPENA

E

G

1. Eskolan matrikulatu gabeko haurren erdiak baino gehiago Saharaz hegoaldeko Afrikan bizi dira.
2. Ozeanoaren %40 ez dago oso kutsatuta.
3. 3.000 milioi pertsona baino gehiago itsasoetako eta kostaldeko bioaniztasunetik bizi dira.
4. Ozeanoek gizakiek sortutako karbono dioxidoaren %30 xurgatzen dute gutxi gorabehera; horrela, berotze globalaren eragina murrizten dute.
5. Enpresek ez dute paper erabakigarria izan behar itsas ekosistemen eta kostako ekosistemen babesean.
6. Enpresek estrategiak ezarri behar dituzte, atmosferara isurtzen duten CO₂ kopurua murrizteko.
7. Kudeaketa jasangarria ezinbestekoa da, ozeanoko aldaketak klima-aldaketa esanguratsua ekar baitezake mundu osoan.
8. Ozeanoen azidotzearen eraginak ahalik eta maila txikienera murriztea eta azidotze horri aurre egitea da uretako bizitzarekin lotutako GIHaren xedeetako bat.
9. Klima-aldaketak kontinente guztietako lurralde batzuetan soilik du eragina, ondorio negatiboak eragiten baititu haien ekonomian eta pertsonen nahiz komunitateen bizitzetan.
10. Hainbat itsas hegazti eta dortoka hil dira plastikoak jateagatik, haietan korapilatzeagatik, plastikoek asfixiatuta eta itota, edo plastikoek eragindako desnutrizioagatik.
11. Klima-aldaketak ez die zuzenean kaltea eragiten pertsonei; klimaren ezaugarri batzuetan baino ez ditu ondorioak: muturreko eguraldi-gertakariak eta itsas maila igotzea eragiten du, adibidez.
12. Klima-aldaketa giza ekintzaren ondorioa da.
13. Herritarrek hezkuntza inklusibo eta ekitatiboa jasoko balute, hainbat baliabide eskuratuko lituzkete munduko arazo handienei irtenbideak bilatzeko.
14. Ozeanoak berotu egin dira, elur eta izotz kantitatea gutxitu egin da, eta itsas maila igo egin da.

	4 5ikain Lan bikaina	3 Lan ona Helburuak oso ongi lortu dituzue	2 Onargarria Onargarria, helburuak guztiz betetzen ez badira ere	1 Ez-nahikoa Ez dira gutxieneko helburuak lortu
ITEMA				
1. GIHei erreferentzia	Neurri berean lantzen dituzte 13. eta 14. GIHak. Ez da helburu bat lehenesten.	Bi GIHak kontuan hartzen dira, baina bat zehaztasun gehiagoz azaltzen da.	Helburu bat soilik zehazten da, bestea landu gabe geratu da.	Helburuak ez dira zehazten. Jasangarritasunaren gaiak eta 2030 Agendaz modu orokorrean aritzen dira.
2. Hizkuntza	Hizkuntza egokia da landutako gairako.	Hizkuntza egokia da, baina ez da gaiarekin lotutako kontzeptuei erreferentziarik egiten.	Hizkuntza informala da, baina gaiarekin lotutako zenbait kontzeptu adierazten dira.	Erabilitako hizkuntza informala da. Gaiarekin loturiko kontzeptu gutxi lantzen dira.
3. Motibazioa	Iragarkia gai da herritarrak motibatzeke, animatzeko edo konbentzitzeko.	Iragarkia gai da une batzuetan herritarrak motibatzeke, animatzeko eta konbentzitzeko.	Iragarkiak ez du ia ikuslearen arreta erakartzen. Ez du nahikoa motibatzen.	Iragarkia ez da gai herritarrak motibatzeke, animatzeko edo konbentzitzeko.
4. Hizkuntzaren transmisioa	Mezua koherentziaz helarazten du, argia da, zehatza eta originala. Gehienetan informazioa beti modu antolatuta eta jarraian adierazten da.	Mezua koherentziaz helarazten du, argia da, zehatza, baina ez da originala. Gehienetan informazioa modu antolatuta eta jarraian adierazten da.	Mezua koherentziaz helarazten du, baina ez da argia eta originala. Batzuetan informazioa modu antolatuta eta jarraian adierazten da.	Mezua ez da koherentzia handiz helarazten. Ez da argia, zehatza, ezta originala ere. Informazioa gehienetan ez da modu antolatuta eta jarraian adierazten.
5. Irudiak	Irudiak bat datoz landutako gairekin.	Irudiak bat datoz landutako gairekin.	Irudiek, une batzuetan, ez dute loturarik adieraztakoarekin.	Irudiek ez dute loturarik landutako gairekin.
6. Sentsibilizazio-tresnaren kalitatea	Adierazi nahi duten informazioa erakusten du.	Adierazi nahi duten informazioa erakusten du.	Oro har ona da, baina batzuetan interes gutxiak ere bada.	Helarazi nahi duten informazioa ez da zehaztasunez erakusten.

16-18 urteko gazteentzako jarduera

MUGITU OZEANOEN ALDE!

Iraupena: hautatutako ekintzaren arabera, iraupena aldatu egin daiteke; 45 minutuko saio bakarra egin daiteke, edota 45 minutuko 3-4 saio...

Materialak: ekintza-motaren arabera izango dira (kartoi mehea eta errotuladoreak, bideo-kamera, ordenagailua, pankartak...)

Helburuak: 1. Gazteak itsasoko bizia zaindu eta babestu beharraren garrantziaz jabetzea.

2. Gure kontsumo-ohiturei buruz hausnartzera bultzatzea, bereziki teknologiarekin lotutakoek buruz.

3. Hezkuntza eta ezagutza ezinbesteko alderditzat hartzea gure bizimoduak itsas ingurumenean dituen eraginak ulertzeko.

GARAPENA



SARRERA

Nazioarteko Diru Funtsaren datuen arabera, munduan 1.500 milioi telefono mugikor saltzen dira urtero.

Horrez gain, bideokontsolak, ordenagailuak, erloju adimendunak... eta beste gailu teknologiko batzuk ere saltzen direla hartu behar da kontuan. Baina, zer lotura izan dezake teknologia-kopuru horrek itsasoko biziarekin? Jarduera honetan gailu mota horietako bat baino ez dugu landuko, erabiliena eta ugariena: telefono mugikorra edo smartphonea. Argi dago tresna horien ekoizpenak, garraioak eta erabilerak aztarna ekologiko garrantzitsua uzten dutela. Gailu horiek ekoizteko material ezberdin asko behar dira, eta askotan, bakoitza lurralde batean muntatzen da. Hori dela eta, mugikorren ekoizpen eta erabileraren ondoriozko CO² isurpenak are handiagoak dira.

“Zabor teknologikoa” deiturikoari ez zaio modu berean aurre egiten lurralde guztietan. Normalean, zabor hori ekoizten duten lurraldeek, lurralde garatuek, gaikako bilketarako sistema ona dute, eta horretarako lege zorrotz eta argiak.



© Dustan Woodhouse

GAI TOXIKO ASKOK KUTSATZEN DITUZTE OZEANOAK

Halere, lurralde horiek ez dira zabor hori birziklatzeaz arduratzen; aitzitik, beste toki batzuetara bidaltzen dute, bereziki Asiara eta Afrikara; han, ordea, birziklatze-metodoak guztiz oinarrizkoak dira. Horrek berekin dakar gai toxiko asko kontrolik gabe isurtzea eta zuzenean ibaietara iristea, eta haietatik ozeanoak kutsatzera iristea. Hori oso kaltegarria da itsasoko biziarentzat, bai eta inguru horietan bizi diren eta arrantzatik elikatzen diren pertsonentzat ere.

Gainera, ikerketa batzuek adierazi dutenez, CO² isurpenak areagotzeak nabarmen hondatuko ditu itsas ekosistemak, kalte handia egingo baitzaie bertan bizi diren animalia eta landareei. Isurpenak

areagotzearen ondorioz, ozeanoen temperatura igo egingo da, eta bertako bizi-baldintzen oreka hautsi.

BEROTZE GLOBALAK ITSASOKO BIZIAN DITUEN ONDORIOEN ADIBIDEA:

Kalkuluen arabera, itsasoko izaki bizidunen %25 inguru koralezko uharrietan bizi da, eta uharri horietarako oso kaltegarriak dira bai temperatura-aldaketak eta bai uraren egoera kimikoaren aldaketak. Egungo CO² isurpen mailarekin, 2050 urterako koralezko uharrietako ekosistemen ia %90 desagertu egin daitekeela kalkulatu da.

ZURE SMARTPHONEARI BURUZKO DATU BATZUK:

- Bateriak 600.000 litro ur kutsa ditzake, Espainiako 740 familien egun bateko kontsumoa bezainbeste.
- Ekoizpenean 40 material toxiko erabiltzen dira (arsenikoa, antimonioa, berilioa, nikela, merkurioa...).
- Osagaien %90 birziklagarria da (%50 plastikoa, %15 beira eta %25 metalak).
- Urre gehiago dago errefusatuak 1.000 kg telefono mugikorretan, urre-meategi batetik ateratako 1.000 kg mineraletan baino.
- 50 telefono mugikorrek lor daitekeen urrea nahikoa da, adibidez, ezkontza-eraztun bat egiteko.
- Erabilitako urte bakoitzeko, 47 kilo CO₂ ere isur daitezke atmosferara.
- Mugikorrek koltana du. Mineral horren ekoizpena dela-eta gerrak piztu dira Afrikan, eta milaka haur aritzen dira meategietatik erauzteko lanetan.



JARDUERA

Mobilizazio-ekintza bat proposatzen dugu, 3 zatitan banatua.

1. ARAZOAREN AURKEZPENA - HASIERAKO EZTABAIDA

Ekintzekin hasi aurretik, beharrezkoa da **sarrera-saio bat** egitea, bai **arazoa zein den aditzera emateko** (mugikorraren erabileraren eraginak itsasoko bizian), eta bai teknologiak gure bizitzan duen presentziari buruz hausnartzeko, bereziki mugikorraren erabilerari buruz. Horretarako, aurrez emandako datuak erabil daitezke, bai aurkezpen programa baten

bidez, bai eztabaida eta iritzi-trukea sustatzeko moduko galdeketa elkarreragile txiki baten bidez ere.

Saio honek 30-45 minutuko iraupena izan dezake. Laburragoa eginez gero, denbora izango dugu ekintza bakoitza diseinatzen hasteko: dela mezuak hautatzeko, dela lana taldeka antolatzeko.

2. EKINTZA-PROPOSAMENA

Gure taldeekin lantzeko 2 ekintza proposatzen dira: telefono mugikorraren “erabilera jasangarrirako” **informazio-kanpaina** bat egitea, eta mugikor zaharrak **biltzeko eta birziklatzeko** ekintza bat egitea, elkartasun-helburuekin.

A EKINTZA

Informazio-kanpaina ikastetxean/auzoan/udalerrian.

Emandako datuetatik abiatuta, mezuak eratu daitezke, edo beste batzuk bilatu. Mezu horiekin, sortzen dugun zabor teknologikoak itsasoko bizian duen eraginari buruz informatzeko/kontzientziatzeko kanpaina bat jar daiteke martxan. Horretarako, kartelak, liburuxkak, informazio-txartelak edo pankartak jar daitezke ikastetxeko sarreran, edota inguruko beste ikastetxeetara informazioa zabaltzera joan, familiei eskutitzak bidali, bertako komunikabideren bat erabili...

Kanpaina bat egiteko urratsak:

• **Zer mezu helarazi nahi dugu? Zein da edo dira mezuak?**

Mezuak argia izan behar du, ez du zalantzarik sortu behar. Gainera, gure eguneroko bizitzan

egin dezakegun zerbait izan behar du, gertukoa eta egingarria..

• **Nori zuzendu nahi diogu mezua?**

Garrantzitsua da hartzailea nor izango den kontuan hartzea, horrek baldintzatu egingo baititu bai mezua, bai ekintza-motak, bai eta jarduera bakoitzaren iraupena ere. Ikastetxeekin lan egin nahi badugu, eskola-ordutegia kontuan hartu beharko dugu. Tokian tokiko elkarte edo kirol-taldeetara jo nahi badugu, hobe arratsaldez.

• **Nork lagunduko digu?**

Mezuaren eragina “handitzen” nork lagundu diezagukeen pentsa dezakegu: pertsona ezagunak, eragin handikoak, auzoko/udalerriko esparru esanguratsuetan lan egiten dutenak...

• **Zenbat iraungo du kanpainak?**

Kanpaina laburra bada, baliteke mezua ez iristea nahikoa pertsonarengana; baina asko irauten badu, mezua “ahaztu” egin daiteke (horrelakorik gerta ez dadin, kanpaina indartzeko jarduerak presta daitezke noizbehinka).

• Zer hartzen dugu arrakastatsutzat?

Amaierako helburua ongi zehaztea oso lagungarria da. Ez da gauza bera udalak birziklatzeko lege bat onartuko duela pentsatzea eta 100 mugikor birziklatzea, edota 1.000 sinadura lortzea, udalak birziklatzeko edukiontzi bat ezar dezan ikastetxean, udal-liburutegian edo kiroldegian, adibidez.

• Zer behar dugu?

Jendea eta borondate ona behar izateaz gain, pentsatu beharko dugu ea zer material eta baliabide beharko ditugun, gure ekintza nolakoa den kontuan hartuta: zer beharko dugu, sare sozialetarako bideo bat grabatu nahi badugu? Eta inguruko eskoletara kanpaina azaltzera joan nahi badugu? Manifestazio bat egin nahi badugu? Jarduera-mota bakoitzerako gauza ezberdinak beharko ditugu; beraz, horietan pentsatu behar dugu, eta are garrantzitsuagoa dena: eskuratu egin behar ditugu.

• Lortutakoaren berri emango dugu?

Ezinbestekoa da parte hartu duten pertsonen eskerrak ematea, bai eta zer lortu dugun azaltzea ere. Baliteke guk egindako ekintza-motak ez ematea aukerarik hori denei bana-banan egiteko, baina ziur badagoela emaitzak helarazteko moduren bat. Pentsatuko dugu nola egin?

9 EKINTZA

Mugikor zaharrak biltzeko kanpaina solidarioa.

Horrela, bi helburu lortzen dira: alde batetik, erabiltzen ez diren terminalak biltzen dira, bestela zakarrontzira bota eta egoki prozesatu gabe geratuko baitziren; bestetik, gizarte-gaien edo ingurumenaren aldeko kausei laguntzen zaie.

Badaude horrelako mugikorrek jasotzearen truke diru-kopuru bat ordaintzen duten enpresak ere. Beraz, beste aukera bat izan daiteke “saltzea” eta bildutako dirua helburu



“BIRZIKLATU ZURE MUGIKORRA” KANPAINA

jakin batera bideratzea. Horrek askatasun handiagoa eman diezaguke (baina baita lan pixka bat gehiago ere; beraz, alderdi guztiak hartu behar dira kontuan).

B ekintza guztiz bateragarria da A ekintzarekin. Izan ere, “zabor elektronikoak” ingurumenean eragiten dituen kalteei buruzko sentsibilizazio-kanpaina bat egin ostean, gaikako bilketari buruzko beste bat jar daiteke martxan.

Kontuan hartu behar dugu, behin jendea kontzientziatuta dagoela, errazagoa dela parte hartzea.

Zati hau luzeagoa izan daiteke; adibidez, kanpaina bati buruzko informazio-kartelak zabaldu nahi izanez gero, minutu batzuetakoa, eta kanpainaren barruan zenbait jarduera antolatu nahi izanez gero, hainbat saiotakoa.

Edonola ere, 45 minutuko 2-3 saiorekin nahiko emaitza onak lor daitezke.

3. EBALUAZIOA

Kanpaina bat izanda, egia da ebaluazioak luze jo dezakeela eta kanpaina amaitzean egin beharra dagoela ebaluazio hori. Nolanahi ere, komeni da atalka ebaluatzen joatea.

Aurkezpen eta eztabaidarako saioaren ondoren, zuzenean galdetu daiteke ea ezagutzen al zituzten datu horiek, edota ea imajinatzen al zuten mugikorrek atzean “historia” luze hori dutela (haurren esplotazioa, gerrak, kutsadura...).

Alde horretatik, iritziak trukatzeko eztabaida aberastu dezake, eta ideiak ekarriko ditu ondorengo mobilizatorako.

Mobilizazio-ekintzaren atalean bertan, garrantzitsua da ematen den urrats bakoitza ebaluatzea. Ebaluazio hori lortutako emaitzen arabera egin daiteke, baina baita prozesuan zehar ebaluatzen joan ere; hartara, uneren batean irtenbiderik aurkitzen ez bada edo ideiak barreiatzen ari direla ikusiz gero, moldatu ahal izango da.

IRAKASLEENTZAKO BALIABIDEAK

Mugikorren bilketarako kanpainak

<https://lamadasolidaria.org/>

<https://bit.ly/39jX895>

<https://bit.ly/386zzRh>

<https://bit.ly/2OB8dLg>

() Elkartasun kanpaina horiez gain, kontuan hartzekoa da telefono-konpainia askok ere erosten dituztela mugikor erabiliak.*

Txostenak

Lan-esplotazioa Afrikako meategietan

<https://bit.ly/2S766Rn>

Mobilizazioa

“Guerrilla Art Kit” liburua, Keri Smith, Paidós Ibérica Argitaletxea, 2013.

Artikulu eta albisteak

<https://bit.ly/386zRYn>

<https://bit.ly/3biFepg>

<https://bit.ly/2OPJMKj>

<https://bit.ly/31D77DV>

<https://bit.ly/31wPZQ8>

Beste baliabide batzuk

<https://alargascencia.org/es>

<https://es.ifixit.com/#>

<https://bit.ly/3829VwR>

<https://bit.ly/39gMCj7>



**SALBA DITZAGUN
OZEANOAK!**

#HAMAZO20

www.cme-espana.org

HEZKUNTZAREN
Aldeko Mundu-karpaina

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra



AGENDA
2030



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

18 urtetik gorakoentzako jarduera

PLASTIKOZKO ITSASORIK


GABE. BUSTI ZAITEZ!

Iraupena: 90 minutu inguruko saio 1.

Materialak: bideoak edota albistea, zuhaitzaren dinamikan arazoaren zuzaitza marrazteko arbela edo kartoi mehea, errotuladoreak, txartelak edo post-itak, Internetarako sarbidea (aukerarik badago), 1. eta 2. eranskinak.

- Helburuak:**
1. Plastikokontsumoaren kausa eta ondorioei buruz hausnartzea, eguneroko bizitzan norberaren eta ingurumenaren garapen hobearren alde egiteko.
 2. Ozeanoen aldeko zenbait ekintza eta banakako zein taldeko eginkizunak ezagutzea, ekosistema babesteko duten eragina aintzat hartuta.
 3. Plastikokontsumoari dagokionez, banakako edota taldeko irtenbideak proposatzea, ekintzak zehatzak aurkeztuta, haietaz arduratu ahal izateko.

GARAPENA



Ozeanoak ezinbestekoak dira gure planetaren orekarako. Izan ere, Lurreko uraren %97 dira, eta giza ekintzek sortutako karbono dioxidoaren %30 xurgatzen dutenez, berotze globalaren eragina murrizten dute.

Gure biziraupenerako nahiz gure planetaren biziraupenerako oso garrantzitsuak badira ere, gaur egun ozeanoak larriki mehatxatutako ekosistema dira: Nazio Batuen datuen arabera, giza ekintzek kalte handiak eragiten dituzte munduko ozeanoen %40tan, gutxi gorabehera: kutsadura, azidotzea, itsas maila eta tenperatura igotzea, baliabideak agortzea eta kostaldeko habitaten galera.

Plastiko-kutsadura oso kezagarria da: ozeano km² bakoitzeko, 13.000 pusketa hondakin plastiko daude batez beste.

Lau zatitan antolatutako jarduera bat proposatzen dizuegu:

1. EZAGUTZEA

BIDEA IKUSTEA EDOTA ALBISTEA IRAKURTZEA

(5-10 minutu)

Ikasgelako baliabideen eta taldearen ezaugarrien arabera, bideoa ikusi edo albistea irakurriko dugu (1. eranskina), plastikoek itsaso eta ozeanoetan eragiten duten kutsaduraren testuinguruan kokatzeko eta horri buruz sentsibilizatzeko.

<https://bit.ly/2uiaxA1>

<https://bit.ly/2OATVu6>

2. AZTERTZEA

“ARAZOEN ZUHAITZA” DINAMIKA¹ (30 minutu)



1. Jarduerari sarrera emateko, “arazoen zuhaitza” deituriko tresna bat erabiltzen ikasiko dutela esango diegu ikasleei; horretarako, talde batek zuhaitz bat marraztu beharko du, kartoi mehean edo arbelean.

¹ Honako honen materialetik aterea: Plan International (2017) *Gender Transformative Advocacy. Niñas Campeonas del Cambio: Plan de estudios para la igualdad de género y los derechos de las niñas.*

Behin marraztuta, zuhaitzaren atalak azaldu behar dira: enborra arazoa da, sustraiak arazo horren kausak, eta hostoak ondorioak. Hau izango da aztertu beharreko arazoa: **itsaso edo ozeanoetako kutsadura**.

2. **Boluntario bati zuhaitzera hurbiltzeko** eta taldeak aztertu beharreko arazoa idazteko eskatuko zaio.

3. Gero, arazoaren kausak pentsatzeko eskatuko diegu ikasleei, eta horretarako **beren ikerketak eta bizipenak erabiltzeko**. Post-itak (ohar itsaskorrek) erabil ditzakete beren ideiak idazteko, bakarka edo binaka hasieran, **galdera orientatzaile hauek** erabiliz:

- Zerk eragiten du arazoa? Zer pertzepzio ditu jendeak arazoaren inguruan?
- Pertsona guztiak jabetzen al dira arazoaz?
- Zein dira arazoaren ondorioak eta zer dakarte berekin?
- Ba al dago arazo hau dela-eta bereziki kaltetutako talderik? Emakumeei eta gizonei era berean eragiten die? Eragiten al du generoarekin lotutako ondorioak?

4. **Ordenan, pertsona bakoitzak bere ekarpenak esan edo irakurri beharko ditu**. Elkarrizketa bideratu baten bidez, ekarpen horiek zuhaitzera zein tokitan kokatu beharko liratekeen erabakiko da.

- Sustraiak (kausak) ala hostoak (ondorioak) dira?

Ekarpen bakoitza dagokion tokian idatzi edo itsatsiko dugu.

5. **Gero, arazoaren kausei buruz sakonago pentsatzeko eskatuko diegu ikasleei:**

- a. Pertsonen jarrerak edo erakundeen politikek egoera okertzen dute?
- b. Zein dira eragile politiko, ekonomiko, sozial edo teknologikoak?
- c. Zer politika, iritzi eta ekintza ari dira arazoa larriagotzen? Ala politikak, iritziak edota ekintzak falta dira?

6. Aurreko urratsean bezala, eztabaida bideratu behar da, ekarpen bakoitza zuhaitzeko zein tokitan jarri erabakitzeko.

3. EZTABAIDA

MEDITERRANEOARI BURUZKO ROL-JOKOA, GIZARTE- ETA INGURUMEN-ALDERDIETAN

OINARRITUA (40-45 minutu)

Itsaso eta ozeanoen egoera zein den eta arazoak, horien kausak eta irtenbideak zein izan daitezkeen ulertu ondoren, rol-joko baten bidez hausnarketa horretan sakontzera animatzen zaituztegu. Horrela, arazo horren ikuspegi ezberdinak taldeka argudiatu eta eztabaidatu ahal izango dituzue.

Mediterraneo itsasoan jarriko dugu arreta. 4 taldetan banatuta, ikasle guztiek parte hartuko dute, eta bat moderatzailea izango da. Moderatzailearen ardura izango da ekarpen guztiak entzun daitezela ziurtatzea eta elkarriketa erraztea.

1. Ahal dela, kopuru bereko taldeak osatuko dira, eta talde bakoitzak arazoa lantzeari ekingo dio, kontuan hartuta berek pairatutako zer kalte eta kezka diren lehenbailehen aurre egin beharrekoak. Rolak banatuko dira, eta talde bakoitzak rol bateko txartela izango du: ekintzaileak, herritarak, klase politikoa edo enpresa-mundua (2. eranskina).

Hautemandako beharrekin zerrenda bat egingo da, eta jokoan esleitutako helburuarekin loturiko argudioak azalduko dira. Balioak, iritziak, nazioarteko hitzarmenak, erabakiak, herritarrentzako kanpainak eta abar erabil daitezke.

Zati honen helburua talde bakoitzak aztertutako egoeraren aurkezpen bat egitea da, eta hor arazoak, beharrak, balioak, aukerak, proposamenak eta abar adieraztea.

2. Ondoren, gainerakoei aurkeztuko diete, talde bakoitzak gehienez ere 3 minutuko denboran. Moderatzaileak erantzuteko txandak eman ditzake eztabaidan, arazo berari

buruz dauden jarrera desberdinak ulertzen laguntzeko. Gainera, ezinbestekoa da ulertzea zeinen garrantzitsua den iritziak eta jarrerak hurbiltzea eta denon artean negoziatzea arazoari aurre egiteko, irtenbideak elkarlanean lortzeko (15-20 minutu).

3. Eztabaida amaitzeko, ateratako ondorioak bildu eta aurkeztu egin daitezke. Amaieran eztabaida bat sor daiteke, parte-hartzaile bakoitzak **rolei buruzko galdera hauei erantzuteko:**

- Nola sentitu zara jolasean, argudiaketan eta ondorengo eztabaidan zehar?
- Zenbateraino hartu duzu parte?
- Proposatutako irtenbideak zure onurarako ziren ala guztion onurarako? (10-15 minutu)

4. EBALUAZIOA (10 minutu)

Jarduera ebaluatzeko, bakoitzak 3 alderdi aipatzea eskatuko dugu:


- 1. Jardueraren ondorioak.** Zer iruditu zaizu, ezagutzen ez zenituen gauza horien artean, deigarriena edo esanguratsuena? Zer sentimendu edo emozio eragin dizu jarduerak?
- 2. Ikaskuntzak.** Zein izan da saioaren ikaskuntza nagusia?
- 3. Zer konpromiso edo erronka** identifikatu edo har dezake norberak eta taldeak?

MATERIAL OSAGARRIA

Entreculturas-en bideo motibagarria, GIHak eta 2030 Agenda lortuz gero etorkizuna nolakoa izango den erakusten duena (2,15. minutuan dihardu ingurumenaz).

www.youtube.com/watch?v=s5EEsa_cYiY

1. ERANSKINA. ALBISTEA: MEDITERRANEOA, PLASTIKOZKO ITSASOA



MEDITERRANEO ITSASOA, kulturen sorlekua, paisaia xarmagarriak eta... plastikoak, mila milioi plastiko zati. Bertako urak horrelako hondakinez beterik daude, plastiko-zopa huts bilakaturik.

© Brian Yurasets

Mediterraneoak plastiko-zati bat du metro karratu bakoitzeko; beraz, Itsaso Bareko “plastikozko uharteen” plastiko-dentsitate bera du. Kutsadura hori –zenbaitetan ikusezina– salatzeko eta geldiarazteko premiazuk neurriak eskatzearen, Greenpeacek Mediterraneo zeharkatu zuen **“Plastiko gutxiago, Mediterraneo gehiago”**.

kanpainaren barruan. Hiru hilabetetan zehar, erakunde horretako itsasontzirik ospetsuenak, Rainbow Warriorrek, *Mare Nostrumeko* urak zeharkatu zituen, Valentziatik hasi eta Kroaziaraino, eta hainbat ekintza egin zituen: salaketa-ekintzak, ikerketak itsasontzian bertan, maila goreneko bilera politikoak, txostenen aurkezpenak eta ate irekiko jardunaldiak.

“Ez da beharrezkoa urrutira joatea ozeanoetan plastikoaren arazoa zeinen larria den ikusteko. Mediterraneo itsasora irten besterik ez dugu, hango itsas fauna plastikoekin itotzen edo korapilatzen ikusteko nahiz plastikoak irensten ikusteko”; hala azaldu zuen Rainbow Warrior ontzian Elvira Jiménezek, Greenpeaceko Ozeanoen kanpainaren arduradunak, Greenpeaceko zientzia-taldeak egindako ikerketa-txosten hau aurkeztu zuenean: *Un Mediterráneo lleno de plástico. Estudio sobre la contaminación por plásticos, impactos y soluciones*.

Munduan 8 milioi tona plastiko sartzen dira urtero itsasoa, batez beste. Hori itsasoko

kutsaduraren %80 da. Ozeanoen azalean 50 trilioi plastiko-zati daude gutxi gorabehera, itsas hondoan daudenak kontuan hartu gabe. Plastiko horrek gure itsasoak itotzen ditu, eta arriskuan jartzen du bertako animalien bizia: dortokena, baleena, arrainena eta itsas hegaztiena, kasu.

Plastikoaren arazoa ez dago beti ikusgai. Batzuetan, lehen begiratuan erraz hauteman daiteke hondartzetan, estuarioetan eta uraren gainazalean. Beste batzuetan ez, minipartikula ikusezin bihurtu arte desegiten baitutuzte olatuek eta eguzkiak. Baina edonon daude, kostaldetik gertu, merkataritza-bideetan eta itsaspeko arroietan. Mota guztietako espezieen barruan aurkitu dira, bai plankton eta moluskuetan, bai eta arrain handi eta itsas ugaztunetan ere.

Hegalaburrak, ezpata-arrainak eta hegaluzeak aztertuta, haietako %18,2tan plastikoak aurkitu dira. *Egiatzko kareta* izeneko dortokak –Mediterraneoan oso esanguratsua denak–, adibidez, irensten duen zaborraren %97,3 plastikoak dira.

“Hondakin plastikoak dira itsas azalean azkarren metatu diren kutsagarrietako bat.

Plastikoa sortu zenetik 100 urte baino zerbait gehixeago soilik bete badira ere, esan daiteke Mediterraneoaren gainazalean aurkitzen ditugun ia itsas hondakin bakarrak direla”, esan zuen Luis F. Ruiz-Orejónnek, CSIC-CEABeko (Consejo Superior Investigaciones Científicas-Centro de Estudios Avanzados de Blanes) ikertzaileak, Greenpeaceari bere bidaian lagundu eta ikerketetarako hainbat lagin hartu zituen aditu independenteak.

“Arazoa ez da soilik estetikoak; komunitate zientifiko osoa ari da ebidentziak lortzen plastikoei itsas organismoetan, maila trofiko guztietan, sortzen dituzten eraginei buruz, eta horrek eragin sozio-ekonomiko gero eta esanguratsuagoak ditu, gainera”, gehitu zuen.

Ez dira zientzialariak inbasio horren berri ematen ari diren bakarrak: itsasoa ongien ezagutzen dutenek eta harekin harreman



estu-estua dutenek ere zabortegi bat bilakatzen ari dela salatzen dute. Honela adierazi zuen Jesús Crespok, Deniako Kofradiako arrantzale artisauek: **“Eguraldi txarra edo itsaslaster handiak daudenean, sareak plastikoz betetzen dira.** Ondorioak ikusten ditugu: animaliek, janaria delako ustean, jan egiten dute. Arrain mordo baten barruan aurkitu dugu plastikoa”.

Egoera hori ikusita, arrantzale artisauek garbiketa-proiektu aitzindari bat abiaraztea erabaki zuten: kofradiako kideak plastikoak biltzeaz arduratzen hasi ziren. “Oso arazo larria da. Horregatik aurkeztu dugu proiektu bat, gu geu plastikoen bilketaz arduratzeko. Gure *baratzea* garbitzea da”, azaldu zuen. Baina, nondik datoz plastiko horiek guztiak? Asko nahita botatzen dira itsasora, edo

ardurarik gabe botatzen dira beste nonbait eta haize edo ur gozoko korronteen bidez iristen dira ozeanoetara. Gainera, gehienak erabilera bakarrekoak dira, minutu batzuetan baino ez dira erabiltzen, baina itsas inguruan ehunka urtez irauten dute. Erabilera bakarreko plastiko horiek gero eta ugariagoak eta mota askotakoak dira; gure eguneroko bizitza inbaditzen dute. Horregatik, Greenpeacek azpimarratu du badaudela erabiltzeari eta ekoizteari uzteko eta hobeto kudeatzeko aukerak. Borondate politiko eta enpresariala besterik ez da behar.

“Hain da handia eta zabala plastikoen arazoa, ezen birziklatzearekin soilik ez baita aski. Plastikoen txorrita itxi behar da, eta murriztearen eta berreraikitzearen alde indarrez egin”, gehitu zuen Jiménezek. “Ardura ez da soilik kontsumitzaileena. Horrelako produktuak ekoizten dituzten enpresek eta enpresa horientzat legeak egiten dituzten politikariek gaiari heldu behar diote, eta berrikuntzaren eta alternatiben alde egin”, amaitu zuen.

<https://bit.ly/31vAh84>

2. ERANSKINA. ROL-TXARTELAK

Eztabaidako argudioak lantzeko laguntza.

EKINTZAILEAK

Gertutik ezagutzen duzue nolako egoera larria bizi duen itsasoak, eskura dituzue hainbat ikerketa eta datu ez oso pozgarri ere, plastikoak epe ertain eta luzera eragiten dituen kalteei buruzkoak. Ekologistak zarete, eta zuen kanpainen bidez herritarrak, erakundeak eta ekintzaileak antolatzeko eta mobilizatzeko gaitasuna duzue. Oso kezkatuta zaudete, kontsumitzaileek plastikoa eta ontziak etengabe kontsumitzen dituztelako, bai eta ontzi horien ekoizpenean erabilitako energia eta materialengatik ere. Kontsumo jasangarriaren alde borrokatzen zarete.

Helburuak: Enpresek plastikoen erabileraren eta ingurumenaren alorrean neurri jasangarriak har ditzatela lortzea.

- Zer irtenbide proposatzen dizkiezue politikariei? Eta herritarrei? Zer alternatiba proposatzen dituzue plastikoa ekoizten duten enpresentzat? Nola hel zaitezkeite haiengana?

HERRITARRAK

Kostaldean bizi zarete, eta itsasoari kalte egiten dioten egoera batzuk ezagutzen dituzue. Plastikoez hondartzak hartu dituzte, eta gero eta gehiago ikusten dira. Zenbaitetan, bainulariak kontzientziatzeko eta zaborra garbitzeko nahiz biltzeko ekintzak eta abar antolatu dituzue. Nekaturik zaudete egoera hau behin eta berriz errepikatzeaz eta politikariek ezer ez egiteaz. Bizilagun ugari kezka dira, irtenbide askok ondorioak eragiten dituztelako haiengan, birziklapenean eta erosketa-gastua areagotzean. Kontsumo arduratsu eta jasangarriaren inguruan kontzientziatzea garrantzitsua dela uste duzue.

Helburuak: Politikariak eta enpresariak arazoari irtenbidea bilatzeaz arduratzea.

- Zuen baliabideak kontuan hartuta, zer egoerari egin behar zaie aurre? Zer eskatzen diezue agintariei eta enpresei? Norekin egingo dituzue hitzarmenak? Norekin arituko zarete elkarlanean?

KLASE POLITIKOA

Badakizue zer ondorio eragiten dituen plastikoaren gehiegizko erabilerak, baina oraintxe bertan ez dago zuen lehentasun politikoen artean. Bestalde, kezka sortzen dizue zuen boto-emaileengana heltzeak eta irtenbideak eskaintzeak. Zuen interesetarako garrantzitsua da, batetik, enpresen eskaerak uztartzea (hondartza-turismoarenak, arrantzaleenak, ontzi-ekoizleenak, hondakinen bilketa eta kontrola egiteaz arduratzen direnenak, etab.), eta bestetik, gastu publikoa murriztea eta politika horietarako aurrekontuak orekatzea.

Helburuak: Herritarrak pozik edukitzea eta enpresariak defendatzea.

- Zein dira zuen ingurumen-politikak? Zer proposamen edo kanpaina jarriko dituzue martxan egoera hau geldiarazteko? Nola lortu herritarrek parte hartzea?

ENPRESA-MUNDUA

Inguruko enpresariak zarete, enpresa ertain zein txikietakoak; hotelak, aisialdiko eta turismoko enpresak, arrantza-armadoreen kofradiak, supermerkatuak, plastiko-ekoizleak, hondakin-bilketako enpresak, hondartzen garbiketarako eta mantentze-lanetarako enpresak. Kezka sortzen dizuete kontsumitzaileei iristen ari zaizkien berriek, plastikoez alderdi sozioekonomikoan eta ingurumen-alderdietan eragiten dituzten ondorioek, bai eta bestelako kontu batzuek ere: zuen ekoizpenak, irabaziak handitu ahal izateak, inbertsioek edota eskualdea sustatzeak.

Helburuak: Zuen enpresen garapen ekonomikoa babestea.

- Zein dira eskualdean eta enpresetan hondakin plastikoek eragiten dituzten ondorioen desabantaila nagusiak? Zer hitzarmen egin ditzakezue kontsumitzaileen egoera hobetzeko?



**SALBA DITZAGUN
OZEANOAK!**
#HAMA2020

www.cme-espana.org
HEZKUNTZAREN
Aldeko Mundu-kanpaina

Nafarroako
Gobernua  **Gobierno
de Navarra**



 **GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACION PARA
EL DESARROLLO**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Mobilizazio-jarduera

BIGARREN

BIZITZAREN TXOKOA

2020ko Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainari dagokion unitate didaktikoa landu ondoren, mobilizazio-jarduera hau proposatzen dugu ikastetxeetan gauzatzeko.

Deskribapena:

- 2020ko Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainaren unitate didaktikoan aurkeztutako proposamen hezigarriak ikasgelan edo bestelako hezkuntza-talde ez-formaletan landu ondoren egiteko pentsatuta dago jarduera hau.
- Jarduera hau ikastetxeetan egiteko diseinatuta dago. Aurrerago helaraziko zaizue eremu publikoetarako proposamena.

Helburuak: 1. Hezkuntza-eskubidearen aldeko konpromisoa sustatzea, bai eta hezkuntza-komunitatearen, inguru hurbilaren eta familien parte-hartzea ere.

2. Gizartea eta bereziki neska-mutilak kontzientziatzea, ohar daitezen zer-nolako eragina duten -gizartearen, gizakiaren eta ingurumenaren ikuspegitik- gizakion jarduerak gure inguruan, batik bat itsasoko ekosistemetan.

3. Ingurumenean eta gizarte-ongizatean eragiten duten faktoreen arteko harreman sakonak eta konplexuak ulertzea eta kritikoki aztertzea, eta nabarmentzea oso garrantzitsua dela faktore horietako batzuen ondorio negatiboak elkarrekin eta modu konstruktiboan aurre egitea.

4. Hezkuntzaren balioa azpimarratzea, ingurumenari eta ezaugarri sozialei

begira gizarte jasangarriagoak eraikitzeko tresna den aldetik, horri esker lortu ahal izango baitugu mundua bizileku egokia izatea gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldietako pertsona guztientzat.

5. Pertsonak kontzientziatzea plastikozko materialen gehiegizko kontsumoaren eta horrek eragiten dituen ondorioen inguruan, eta azpimarratzea zeinen garrantzitsua den birziklatzea, berrerabiltzea eta mota horretako materialen erabilera gutxitzea.





BIGARREN BIZITZAREN TXOKOA

2020ko Hezkuntzaren Aldeko Munduko Astearen (HAMA) baitako mobilizazio-jardueraren bidez, parte-hartzaileen somena sustatu nahi dugu. Horretarako, proposatzen dugu **berrerabilitako plastikoekin eskulturak sortzea.**

Ikasleei ikasturte guztian zehar eskatuko diegu identifikatzeko plastikozko zer objektu erabiltzen dituzten egunero-egunero, ikastetxean eta handik kanpora (botilak, tapoiak, poltsak, elikagaien ontziak eta bilgarriak...). Horrela, ikasleek ikusiko dute plastikozko hondakin-kopuru izugarria sortzen dugula.



© Brian Yurasits

Ahal izanez gero, hondartzetan, ibaietan, aintziretan edota beste ur-ekosistema batzuetan **hondakinak biltzeko ekimenak** antola ditzatela proposatuko diegu parte-hartzaileei. Jarduera hori familian egitekoa ere izan daiteke, ikasleen ingurune hurbileko jendeak ere proiektuan parte har dezan.


Parte-hartzaileei eskatuko diegu hondakin horiek ikastetxeko txokoren batean gordetzeko, bigarren bizitza bat eman ahal izateko.

PLASTIKOZKO ESKULTURAK

Jarduera honetako erronka nagusia da hondakin horiek erabiliz eskulturak edo konposizio artistikoak sortzea, agerian jartzeko hezkuntza funtsezkoa dela klima-aldaketaren faktoreei eta ondorioei aurre egiteko, eta azpimarratuz zeinen garrantzitsua den gure ekoizpen- eta kontsumo-ohiturak aldatzea (besteak beste, plastikoaren kontsumoa).

Eredu gisa, irudi horietan hainbat¹ konposizio, ikus daitezke, baina kasu honetan eskulturrek ez dute itsasoarekin zerikusia izan behar, hezkuntzarekin baizik (arkatzak, liburuak, mahaia, etab.).

Neska-mutilak taldetan banatuko dira, eta



talde bakoitzak erabaki beharko du zer irudikatu nahi duen, jarduera egin aurreko asteetan gordetzen aritu diren hondakin plastikoekin.

¹ Galiziako Mar de Fábula elkartearen ekimen zoragarriaren web-orrian ideia gehiago aurkituko dituzue.

BIGARREN BIZITZAREN TXOKOA

Plastikozko hondakinekin egindako eskultura/konposizioak ikastetxeko txoko batean jarriko dira ikusgai: Bigarren bizitzaren txokoa.

Gure helburua da txoko hori ikasleentzako, irakasleentzako eta, ahal izanez gero, familientzako hausnarketa-gune bihurtzea; hau da, **hezkuntza gure planeta salbatzeko tresna garrantzitsua** dela ulertzeko gune bat. “Bigarren bizitzaren txokoa” familiei eta gizarteari irekitako eremu bat ere izan daiteke, bertan erakusketa txiki bat antolatuz gero. Parte-hartzaileek gidari-lanak egin ditzakete, bisitariari erakusketaren nondik norakoak azalduz.

Esate baterako, erakusketaren inaugurazio-egunean ekitaldi txiki bat antola daiteke, eta hurrek beren inguruko pertsonak gonbida ditzakete eskolara, proiektuaren inguruko kontuak azaltzeko. Horrela, komunitatea ere inplikatu da “Bigarren bizitzaren txoko” horretan.

Jardueran pauso bat harago joan nahi dutenentzat beste proposamen bat ere badugu: antolatzean, kontuan har dezatela eskultura/konposizio guztiak elkarren artean lotura izan behar dutela eta istorio bat kontatu behar dutela, **hezkuntzaren eta jasangarritasunaren arteko erlazioa** azaltzeko, bereziki itsasoko ekosistemen babesari lotuta.

Horrela, lehenik, ikasleek gogoeta egin beharko dute erlazio hori istorio baten bidez nola azaldu jakiteko; eta gero, pentsatu beharko dute nola azaldu dezaketen istorio hori zenbait eskultura/konposizioen bidez, eskultura horiek elkarrekin hitz eginez eta komunikatuz jarrita. Amaitutakoan, eskultura horiek guztiak bigarren bizitzaren txokoa jarriko dira ikusgai.

Horrez gain, proposatzen dugu “Bigarren bizitzaren txokoa” iradokizunen buzoi bat ere jartzea, hori ere hondakin plastikoekin egina. Gero, ikasleei eskatuko diegu berrerabilitako paperetan zenbait proposamen idazteko:

batetik, zer egin daitekeen bai norberak eta bai ingurukoek plastiko gutxiago kontsumitzeko eta kontsumitutako plastikoak berrerabiltzeko, eta bestetik, ingurumenaren jasangarritasuna hobetzeko beste proposamen batzuk.

Gainera, haurrei eta gazteei eskatuko diegu proposatzeko zer neurri har daitezkeen beren ikastetxeetan edo hezkuntza-talde ez-formaletan ingurumenaren jasangarritasuna eta, zehatzago, itsasoko eta ibaietako inguruneak babesteko. Horrela ulertuko dute beren **ingurune hurbilenetik ere egin dezaketela zerbait klima-aldaketari aurre egiteko**, eta beren parte-hartzeak aldaketak eragin ditzakeela.

Amaitzeko, parte-hartzaileek egindako proposamen horiek abiapuntutzat hartuta, ikastetxeei / hezkuntza-talde ez-formalei eskatzen diegu idatz dezatela beren **“Klimaren aldeko konpromisoen gutuna”**, eta bertan konpromisoa har dezatela, ikasleen proposamen horietako batzuk betetzeko.





**SALBA DITZAGUN
OZEANOAK!**

#HAMAZOZ0

www.cme-espana.org

HEZKUNTZAREN
Aldeko Mundu-kanpainia

